

## **UDALAREN OSOKO BILKURA**

### **2018ko MARTXOAREN 22an EGINDAKO APARTEKO BATZARRALDIA**

Elkartutakoak

#### **Alkatea**

Jon Luqui Albisua, jauna (E.A.J./P.N.V.)

#### **Zinegotziak**

Igor Zubillaga Aguado, jauna (E.A.J/ P.N.V)  
Itziar Agirre Berriotxoa , andrea (E.A.J/ P.N.V)  
Jon Albisua Garmendia, jauna (E.A.J/ P.N.V)  
Maialen Fidalgo Mendizabal, andrea (E.A.J/ P.N.V)  
Oihane Zabaleta Mujika, andrea (E H Bildu)  
Iñaki Etxaniz Arregi, jauna (E H Bildu)  
Nerea Altolaguirre Berastegui, andrea (E H Bildu.)  
Aitor Otegi Epelde, jauna (EH Bildu)  
Fco. Javier Martin Mateo, jauna (P.S.E.-E.E)  
Natividad Nieves Medina andrea (P.S.E.-E.E)  
Alberto La Rosa Viedma (Irabazi)

#### **Ez Bertaratua**

Matilde Sanz García, andrea (EH Bildu)

#### **Idazkaria**

María Jose Begiristain Zabalo andrea

Urretxun bi mila eta hamazortziko martxoaren hogeita bian.

Arratsaldeko zazpiak direnean, aldez aurretik deitutako aparteko batzarraldia egiteko, Udalbatzarra bildu da udaletxeko batzar areto nagusian; goian agertzen diren udal-bazkideak elkartu dira.

En Urretxu a veintidós de marzo de dos mil dieciocho.

Siendo las diecinueve horas se reúne en la Sala Capitular del Ayuntamiento el Pleno de la Corporación al objeto de celebrar sesión extraordinaria para la que había sido convocada y a la que asistieron los Señores Corporativos que arriba se indican.

Lehendakariak ekitaldiari hasiera eman dio, eta bere aginduz, eguneko gai-zerrendan sartutako gai ei eztabaidatzeari ekin diote

Abierto el acto por la Presidencia y de su orden se pasó a tratar los asuntos relacionados en el Orden del Día

1.-.Plantila organikoa eta langileen zerrendaren aldaketa.	1.- Modificación plantilla orgánica y relación de puestos de trabajo.
2.- Urretxuko Udaltzaingoaren Araudia: onarpena.	2.- Reglamento policía local de Urretxu: aprobación.
3.-. Larrialdietarako Udal Plana: onarpena.	3.- Plan Emergencia municipal: aprobación.
4.- ESEP (Euskara sustatzeko Ekintza Plana) 2018-2022 Plan Estrategikoa: onarpena.	4.- ESEP (Plan de Acción para el Fomento del Euskara: aprobación del Plan estratégico 2018-2022.
5.- Pagoetako eraikinak Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop-i erabilpen lagapena: onarpena.	5.- Cesión de uso de edificios de Pagoeta a Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop.: aprobación.

### **1.- Plantila organikoa eta langileen zerrendaren aldaketa.**

Alkate jaunak azaldu du Udalbatzak, 2017ko abenduaren 21ean egindako osoko bilkuran, funtzionarioen eta lan-itunpeko lanpostuen plantila eta lanpostu-zerrenda onartu zituela; aurrekoetan, udaltzainburu plazak “udaltzainburu” izena zuela, C1 klasifikazio taldean dagoelarik, eta betetzeko era lehiaketa-oposaketa delarik.

Jarraian esan du Euskadiko Udaltzaingoan antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru arauak ezartzen dituen 58/2015 Dekretuaren arabera, Urretxuren ezaugarriak dituen udal bati udaltzaingoaren buruzagitzari ofizial-ondoko kategoria eta C1 klasifikazio taldea dagokiola.

### **1.- Modificación plantilla orgánica y relación de puestos de trabajo.**

El Sr. Alcalde expone que en sesión celebrada el 21 de diciembre de 2017, el Pleno aprobó la plantilla de puestos de trabajo reservados a funcionarios y a personal laboral, y la correspondiente relación de puestos de trabajo, en las cuales la plaza de jefe de la policía municipal se denomina “jefe”, está en el grupo de clasificación C1, y se establece que su forma de cobertura es el concurso-oposición.

Sigue diciendo que de acuerdo a lo dispuesto en el Decreto 58/2015, por el que se establecen las normas marco aplicables a la organización y funcionamiento de los cuerpos de policía local de Euskadi, a un ayuntamiento de las características de Urretxu le corresponde que la jefatura del cuerpo ostente la categoría de suboficial y se encuentre en el grupo de



Urretxu udala



Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzatik jakinarazi digute plaza betetzeko barne promozioa dela egokiena.

Kontuan izanik udal idazkariak egindako txostena eta martxoaren 15ean Udal Antolamendua, Parte-hartze eta Hizkuntza Politika Batzordeak egindako aldeko diktamena.

Inork hitza hartu ez duelarik, gaia botoetara eramanda, eta aho batez honakoa erabaki da:

**Lehenengo.-** 2018ko ekitaldiko plantila organikoa aldatzea, udaltzainburu plazaren izena “ofizial ondoko-buruzagitza” izan dadin, eta aldaketa hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

clasificación C1. Y desde la Dirección de Coordinación de Seguridad de Gobierno Vasco se ha planteado que la cobertura de la plaza se realice mediante promoción interna.

Considerando el informe emitido por la secretario municipal y el dictamen favorable de la Comisión de Ordenación Municipal, Participación y Política Lingüística celebrada el 15 de marzo pasado.

No habiendo intervenciones, se somete el asunto a votación, y por unanimidad, se acuerda:

**Primero.-** Modificar la plantilla orgánica del ejercicio 2018, de forma que la plaza de jefe de la policía municipal se denomine “suboficial jefe”, y publicar esta modificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

### PLANTILA ORGANIKOAREN ALDAKETA MODIFICACION PLANTILLA ORGANICA

Plaza kopurua Num. Plazas	Izena Denominación	Taldea Grupo L.6/89	Egoera Situación	Oharrak Observaciones
<b>KARRERADUN FUNTZIONARIENTZAKO LANPOSTUAK PUESTOS RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA</b>				
<b>ADMINISTRAZIO BEREZIA ESKALA ESCALA ADMINISTRACION ESPECIAL</b>				
	<i>Azpieskala: Zerbitzu Bereziak Subescala Servicios Especiales</i>			
	Mota: Udaltzaingoa Clase: Policía Municipal			
1	Ofizial ondoko buruzagitza Suboficial jefe	C1	V	Borondatezko eszedentzia Excedencia voluntaria

**Bigarren.-** 2018rako lanpostuen zerrenda aldatzea, udaltzainburu plazaren izena “*ofizial ondoko-buruzagitza*” izan dadin eta betetzeko modua barne promozioa izan dadin, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitara ematea.

**Segundo.-** Modificar la relación de puestos de trabajo para 2018, de forma que la plaza de jefe de la policía municipal se denomine “*suboficial jefe*” y su forma de provisión sea la promoción interna, y publicar esta modificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

**LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETA**  
**MODIFICACION DE RELACION DE PUESTOS DE TRABAJO**

**FUNCIONARIOS DE CARRERA**

Izena Denominación	Betetzeko modua Forma provisión	Saila Area Dependencia	Taldea Grupo	CD	Dedikazioa Dedicación	Titulazioa Titulación	H.E. Derrigortasuna P.L. Preceptividad	Egoera Situación
Ofizial ondoko buruzagitza Suboficial jefe	Barne promozioa Promoción interna	Hiri segurtasuna Seguridad ciudadana	C1	21	100% CDE 15%	FP-II o equivalente	3 31-12-1994	Borondatezko eszedentzia. Excedencia voluntaria

**2.- Urretxuko Udaltzaingoaren Araudia: onarpena.**

Alkate jaunak aditzera eman du onartzeko ekarri den Araudi hau ere 58/2015 Dekretutik datorrela, Euskadiko Udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari aplikagarri zaizkion esparru arauak ezartzen dituen. Esan duenez, udaltzaingoaren koordinatzaileak prestatu du, eta honako aspektu hauek jasotzen ditu: Urretxuko udaltzaingoaren eginkizunak, bere jardunaren oinarriko printzipioak, egitura eta antolamendua, eskubideak eta betebeharrak, eta disziplina erregimena.

Kontuan izanik udal idazkariak egindako txostena eta martxoaren 15ean Udal Antolamendua, Parte-hartze eta Hizkuntza

**2.- Reglamento policía local de Urretxu: aprobación.**

El Sr. Alcalde expone que este Reglamento, cuya aprobación se propone, deviene también del Decreto 58/2015, por el que se establecen las normas marco aplicables a la organización y funcionamiento de los cuerpos de policía local de Euskadi. Dice que ha sido elaborado por el coordinador de la policía local y recoge aspectos tales como las funciones de la policía local de Urretxu, sus principios básicos de actuación, su estructura y organización, sus derechos y deberes, su uniformidad, y su régimen disciplinario.

Considerando el informe emitido por la secretario municipal y el dictamen favorable de la Comisión de Ordenación Municipal, Participación y Política Lingüística celebrada el 15 de marzo pasado.



Urretxu



Politika Batzordeak egindako aldeko diktamena.

Inork hitza hartu ez duelarik, gaia botoetara eramanda, eta aho batez honakoa erabaki da:

**Lehenengo.-** Urretxu Udaltzaingoaren Araudari hasierako onarpena ematea.

**Bigarren.-** Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49 b) artikulua betez, jendaurrean agertzea erabaki hau, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz hogeita hamar egunetan zehar, erraklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan daitezen.

Epe hori igaro eta erreklamaziorik ez bada, behin betikotzat onartuko da.

### **3.- Larrialdietarako Udal Plana: onarpena.**

Alkate jaunak azaldu duenez, onartzeko ekarri den Larrialdietako Udal Plana Premank enpresak egindako dokumentu tekniko bat da. Planifikatzeko tresna bat da, babes zibilaren ikuspegitik, eta azken finean herriak izan ditzakeen arriskuak jasotzen ditu (uholdeak, suteak, trenbide edo errepide garraioan izan daitezkeen istripuak...) eta horien aurrean erantzuna nola eman modu antolatuan. Erabilgarri dauden giza baliabideak eta materialak ere jasotzen ditu. Eta azkenik, aditzera eman du plan hau udalaz gaindiko babes zibileko planetan txertatuko dela.

Albisua jaunak (EAJ-PNV) hitza eskatu eta aditzera eman du Larrialdietako Planak bost arrisku maila bereizten dituela, oso arrisku

No habiendo intervenciones, se somete el asunto a votación, y por unanimidad, se acuerda

**Primero.-** Aprobar inicialmente el Reglamento del cuerpo de la policía local de Urretxu.

**Segundo.-** En cumplimiento del art. 49 b) de la Ley Reguladora de Bases de Régimen Local, someter este acuerdo a información pública mediante la publicación durante treinta días de anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

Transcurrido este plazo sin producirse reclamaciones, la aprobación devendrá definitiva.

### **3.- Plan Emergencia municipal: aprobación.**

El Sr. Alcalde explica que el Plan de Emergencia municipal cuya aprobación se propone es un documento técnico elaborado por Premank. Se trata de un instrumento planificador desde la perspectiva de la protección civil, y en definitiva lo que recoge son los posibles riesgos a que está sometido el municipio (inundaciones, incendios, accidentes por el transporte ferroviario y por carretera,...) y la forma organizada de respuesta ante los mismos. Recoge también los medios humanos y materiales disponibles. Por último indica que este Plan se integrará en los planes de protección civil supramunicipales.

El Sr. Albisua (EAJ-PNV) pide la palabra y expone que el Plan de Emergencia categoriza en cinco los niveles de riesgo, desde muy bajo a



Urretxu udala

txikitik oso haundira. Eta balizko arrisku bakoitzari maila bat jartzen dio; ikusten denez, maila haundiena duena “onargari” agertzen da, hau da, erdi mailakoa, eta bere iritzirako aspektu horiek azpimarratzekoak dira, eta baita lasaigarriak ere.

Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak, Mugikortasuna eta Trafiko Batzordearen aldeko diktamena kontuan izanik, eta gaia botoetara eramanda, aho batez erabaki da:

**Lehenengo.-** Larrialdietako Udal Plana onartzea.

**Bigarren.-** Eusko Jaularitzako Larrialdien Arreta Zuzendaritzara bidaltzea planaren ale bat.

#### **4.- ESEP (Euskara sustatzeko Ekintza Plana) 2018-2022 Plan Estrategikoa: onarpena.**

Alkate jaunak azaldu duenez, Euskara Sustatzeko Ekintza Planak onartu eta martxan jarri izan dira aurreko legealdietan, aurreko planaren indarraldia 2017ko urtean amaitu delarik.

Aditzera eman du orain proposatzen den plan honen denboraldia 2018ko urtetik 2022ra arte izango dela, eta hamazazpi esparru hartzen dituela, horietako bakoitza hainbat ekintzekin: 1) Familia Transmisioa, 2) Irakaskuntza, 3) Euskalduntze eta alfabetatzea, 4) Administrazioa, 5) Gune geografiko euskaldunenak, 6) Sozio-ekonomia, 7) Aisia eta kirola, 8) Irakurzaletasuna, 9) Kulturgintza, 10) Publizitatea, 11) Euskararen kalitatea, 12) Hedabideak, 13) Informazioaren era



muy alto. Y a cada posible riesgo le pone un nivel, observándose que el nivel más alto indicado es el de “aceptable” es decir intermedio, aspectos estos que, a su juicio, son destacables y en parte, tranquilizadores.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Urbanismo, Obras, Servicios, Movilidad y Tráfico, y sometido el asunto a votación, por unanimidad se acuerda:

**Primero.-** Aprobar el Plan de Emergencia Municipal.

**Segundo.-** Remitir un ejemplar del mismo a la Dirección de Atención de Emergencias de Gobierno Vasco.

#### **4.- ESEP (Plan de Acción para el Fomento del Euskara: aprobación del Plan estratégico 2018-2022.**

El Sr. Alcalde expone que en anteriores legislaturas se han ido aprobando y poniendo en marcha distintos Planes de Acción para el Fomento del Euskara, habiendo finalizado la vigencia del anterior el pasado año 2017.

Indica que este Plan que ahora se propone extiende su ámbito temporal desde el año 2018 hasta el año 2022, y contiene diecisiete ámbitos cada uno con distintas acciones: 1) transmisión familiar, 2) Enseñanza, 3) Euskaldunización y alfabetización, 4) Administración, 5) Zonas geográficas más euskaldunas, 6) Socio-economía, 7) Ocio y deporte, 8) Lectura, 9) Cultura, 10) Publicidad, 11) Calidad, 12) Medios de comunicación, 13) Tecnologías de la información y la comunicación, 14)



Urretxuko udala

komunikazioaren teknologiak, 14) Sentsibilizazioa eta Motibazioa, 15) Barruko proiektzioa, 16) Kanpoko proiektzioa, 17) Beste batzuk, adib. diru-laguntza bidezko sustapena.

Jarraian esan du aurreko planetan jasotako esparruak direla gehienak, eta prozesuarekin jarraitzea dela asmoa. Berrikuntza gisa familia eta administrazioa jasotzen dira, eta azken horri dagokionez, VI. Euskara Plana prestatu behar du Udalak.

Proposatzen den planaren edukia azaldu ondoren, alkate jaunak adierazi du ondo dagoela plan bat edukitzea, jarduketa marko bat eskaintzen digulako, baina bestalde, Urretxun eta Zumarragan duela gutxi egin den kale neurketaren emaitzetan erreparatu nahi duela; datu horien arabera, kaleko harremanetan %22,3 erabiltzen da euskara, eta %75,2 gaztelera erabiltzen da.

Esan du gainera Eustatek argitaratutako datuen arabera, Urretxuri dagokionez 6.710 biztanle dituela gure herriak, eta horietatik 4.024 euskal hiztunak dira, 1.134 euskara ulertzen dutenak eta 1.550 ulertzen ez dutenak.

Datu bitxiak direla esan du, izan ere ezagutza askoz ere haundiagoa da kaleko erabilera baino, eta horregatik, bere ustez, garrantzitsua da familia transmisioaren esparrua.

Gainera, gogora ekarri du, Euskararen Nazioarteko Eguna zela eta, adierazpen bat onartu zela "365 egun euskaraz" dinamika martxan jartzeko konpromisoarekin, eta bertan bi figura agertzen direlarik: "aho bizi", euskaraz hitz egiten dutenei zuzendua, eta "belarriprest", euskara ulertzen dutenei zuzendua.



Sensibilización y motivación, 15) Proyección interna, 16) Proyección externa, 17) Otros, como el fomento a través de subvenciones,

Sigue diciendo que en su mayoría son ambitos que los anteriores Planes también han recogido, y que lo que se trata es de seguir el proceso. Se recogen como novedades los ámbitos familiar y de la administración, y respecto a este último el ayuntamiento tiene que preparar el 6º Plan de Uso del Euskera.

Terminada la exposición del contenido del Plan que se propone, el Sr. Alcalde dice que disponer de un Plan está bien porque nos proporciona un marco de actuación, pero que también quiere incidir en los resultados de la medición del uso de euskara realizada hace poco tiempo en Urretxu y Zumarraga, y que nos han postrado que el 22,3% utiliza el euskara en sus relaciones en la calle, y el 75,2% utiliza el castellano.

Añade que Eustat ha publicado los datos correspondientes a Urretxu y en nuestro municipio de 6.710 habitantes, 4.024 son euskoparlantes, 1.134 entienden la lengua y 1.550 no la entienden.

Indica que son datos curiosos porque el conocimiento parece ser muy superior a su uso en la calle y es por ello que considera importante el ámbito de la transmisión familiar.

Recuerda también que, con motivo del Día Internacional del Euskara, se aprobó una declaración con el compromiso de poner en marcha la dinámica "365 en euskera", donde se recogen dos figuras: "aho bizi" dirigido a las personas que hablan habitualmente en euskera, y la figura de "belarri prest" dirigida a personas

Azkenik esan du euskara dela daukagun altxor garrantzitsuenetakoa, jorratzen jarraitu behar dugun altxorra hain zuzen ere.

Zinegotziek hitz egiteko txandari hasiera emanda, Zabaleta andreak (EH Bildu) eskatu du hitza, eta alkateak azaldutakoari erantsi dio Urretxu eta Zumarragako kaleetan egindako neurketetan ikusten da geldi geratu garela, eta hain zuzen ere hizkuntza hau gutxien erabiltzen dutenak pertsona helduak direla; hortaz, bere ustez, autokritika egin behar dugu denok, eta urratsak eman behar ditugu, udaletxean bertan euskararen erabileraren eredu izateko. Esan du gainera ezagutza egon badagoela, baina gaztelera erabiltzeko joera dagoela, eta horregatik euskararen erabilera hobetzeko ahalegina egin behar dela, hori guztia kontuan izanik gure datuak eta Euskal Herrikoak antzekoak direrla.

Zinegotzien txanda amaiturik, Sustapen Soziokulturaleko Batzordearen aldeko txostena kontuan izanik, eta gaia botoetara eramanda, honako hau erabaki da aho batez:

**Bakarra.-** 2018 – 2022 Euskara Sustatzeko Ekintza Plan Estrategikoa (ESEP) onartzea.

**5.- Pagoetako eraikinak Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop-i erabilpen lagapena: onarpena.**

Alkate jaunak gogora ekarri du 2015eko hauteskundeen aurretik, EAJ-PNVk eta Bilduk konpromiso bat sinatu zutela, Gainzabal AIR 16 delakoaren birpartzelazio proiektua behin

que entienden el euskera.

Por último dice que el euskera es uno de los tesoros más importantes que tenemos, tesoro que hay que seguir trabajándolo.

Iniciado el turno de intervenciones pide la palabra la Sra. Zabaleta (EH Bildu) , y añadiendo a lo expuesto por el Sr. Alcalde, dice que de las mediciones del uso del euskera en la calle realizadas en Urretxu y Zumarraga se observa que nos hemos quedado estancados, y que, curiosamente, los que menos utilizan esta lengua son las personas adultas, por lo que, a su juicio, todos tenemos que autocriticarnos y dar pasos para ser modelo de uso en el propio ayuntamiento. Añade que el conocimiento existe, pero que la tendencia es usar el castellano, por lo que se pueden y deben intentar hacer mejoras en el uso, todo ello teniendo en cuenta que nuestros datos y los del resto de Euskal Herria son parecidos.

Finalizado el turno de intervenciones, considerando el dictamen favorable de la Comisión de Promoción Sociocultural, se somete el asunto a votación y, por unanimidad, se acuerda:

**Único.-** Aprobar el Plan estratégico de Acción para el Fomento del Euskara (ESEP) 2018-2022.

**5.- Cesión de uso de edificios de Pagoeta a Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop.: aprobación.**

El Sr. Alcalde recuerda que, previo a las elecciones de 2015, EAJ-PNV y Bildu, firmaron un compromiso para adoptar las medidas y pasos necesarios para que, una vez aprobado





Urretxu udala

betiko onartutakoan, hartu beharreko neurriak hartu eta urratsak emateko, hain zuzen ere Aita Pasiotarrenak ziren eta Pagoeta auzoan kokaturik dauden eraikinen erabilera Urretxu-Zumarraga Ikastola Koop. Elkarteari lagatzeko. Denbora luzea igaro ondoren, planeamenduko hainbat agiri bideratu behar izan direlarik, azkenean lagapen proposamena aurkezten da.

Jarraian, Planeamenduko eta Hirigintza Kudeaketako Batzordeburu den Zubillaga jaunak azaldu du Urretxu-Zumarraga Ikastola Koop. Elkarteari hainbat eraikinen erabilera doan lagatzea proposatzen dela, 75 urteko epean, heziketa jarduera gauzatu ahal izan dezan. Utzitako eraikinen kontserbazioa eta mantentze lana Ikastolaren kontura izango dira eta gaur egungo egoeran itzuli beharko dira, eta horietan egindako hobekuntzak Udalarentzat geldituko dira, Ikastolak inolako erreklamaziorik egiteko aukerarik gabe.

Aditzaera eman du zerbitzu guztien gastuak ere lagapena jasotzen duenaren kontura izango direla, baita eragin litezkeen kalteak ere, bai hirugarrenei, bai eraikinetan bertan gertatutakoak.

Gainera, edozein obra egiteko Udalaren baimena beharko du, bera baita eraikinen jabea, beti ere obretarako udal lizentzia baztertu gabe. Eta aipatu du baita ere, lagapena 75 urte igaro baino lehen amaituko dela, baldin eta heziketa jarduera amaitzen bada, eta lagapen-hartzaileak utzitako ondasuna itzultzen baldin badu, haurreskolarekin gertatu den bezala.

Zinegotzien txandari hasiera emanda, Nieves andreak (PSE-EE) eskatu du hitza, eta aditzaera



definitivamente el proyecto de reparcelación del AIR 16 Gainzabal, se procediera a la cesión de uso a Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop de los edificios sites en Pagoeta auzoa, entonces de los Padres Pasionistas. Tras un dilatado periodo de tiempo, en el que se han tenido que tramitar distintos documentos de planeamiento, por fin se presenta la propuesta de cesión.

Seguidamente el Sr. Zubillaga, presidente de la Comisión de Planeamiento y Gestión Urbanística, expone que se propone ceder gratuitamente a Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop. el uso de varias edificaciones, por un plazo de 75 años, para que pueda llevar a cabo su actividad educativa. La conservación y el mantenimiento de los inmuebles cedidos serán a cargo de la Ikastola y estos deberán ser devueltos en el estado actual, y las mejoras que se realicen en los mismos quedaran en favor del ayuntamiento sin que la ikastola pueda reclamar nada al respecto.

Indica que los gastos de todos los servicios también serán a cuenta de la cesionaria, así como los daños que se pudieran causar, tanto a terceros como a los propios inmuebles.

Aclara que cualquier obra que se pretenda realizar deberá contar con la autorización del ayuntamiento en su calidad de propietario de los inmuebles, sin perjuicio de la licencia municipal de obras. Y señala que la cesión finalizará, antes del transcurso de los 75 años, en caso de que finalice la actividad educativa, y en el caso de la cesionaria devuelva el bien cedido como ha ocurrido con el parvulario.

Iniciado el turno de intervenciones pide la palabra la Sra. Nieves (PSE-EE) y señala que siguen sin



Urretxu udala

eman du ez dutela garbi ikusten titularitate publikoa duen gun bat erakunde pribatu bati uztea; hortaz, orain arte izan duten jarrera izango dute, eta beraz abstenitu egingo dira.

Hitz egiteko tartea amaiturik, eta Planeamenduko eta Hirigintza Kudeaketako Batzordearen aldeko txostena kontuan izanik, gaia botoetara eraman da; aldeko botoa eman dute alkate jaunak eta Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Zabaleta (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu), Etxaniz (EH Bildu), Otegi (EH Bildu), eta La Rosa (Irabazi) zinegotziek (10 boto aldeko), eta abstenitu egin dira Nieves (PSE-EE) eta Martin (PSE-EE) zinegotziak (2 abstentzio); horrenbestez, honako hau erabaki da:

**Lehenengo.-** Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop. ikastetxeari, berorrek haur-hezkuntzako lehen eta bigarren zikloak, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako lehen zikloa eman ditzan honako ondasun higiezin hauek erabiltzeko lagapena egitea:

- Planoan B letrarekin identifikatutako eraikin-elementuaren goi-solairuak (lehen solairua eta teilatupeko solairua); elementu horren behe-solairua edo orubea 1 zenbakiko elementuan dator txertatuta, 155,71 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia du osotara, lehen solairuaren eta teilatupeko solairuaren artean banatuta; muga hauek ditu: Iparraldean, A eta G2 letrarekin identifikatu diren eraikinak; Hegoaldean, D letrarekin identifikatutako eraikina; Ekialdean, A letrarekin identifikatutako eraikina; eta Mendebaldean, G1 eraikina eta eliza.



ver claro el hecho de ceder un espacio de titularidad pública a una entidad privada, por lo que van a seguir manteniendo la postura que ha tenido hasta ahora, por lo que se abstendrán.

Finalizadas las intervenciones, y considerando el dicamen favorable de la Comisión de Planeamiento y Gestión Urbanística celebrada el 19 de marzo, se somete el asunto a votación y, con los votos favorables del Sr. Alcalde y de las/los ediles Sra. Agirre (EAJ-PNV), Zubillaga (EAJ-PNV), Albisua (EAJ-PNV), Fidalgo (EAJ-PNV), Zabaleta (EH Bildu), Altolagirre (EH Bildu), Etxaniz (EH Bildu), Otegi (EH Bildu), y La Rosa (Irabazi) {10 votos a favor}, y las abstenciones de las/los concejales Sra. Nieves (PSE-EE) y Martín (PSE-EE) {2 abstenciones}, se acuerda:

**Primero.-** Ceder a Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop. para que imparta en los mismos los ciclos primero y segundo de educación infantil, educación primaria, y primer ciclo de educación secundaria los siguientes inmuebles:

- Plantas altas (planta primera y planta bajo cubierta) del elemento edificatorio identificado con la letra B del plano, cuya planta baja o solar se integra en el elemento número uno y que comprende una superficie construida total de 155,71 m<sup>2</sup> distribuidos en planta primera y bajo cubierta, y que linda: al Norte, con edificios identificados con las letras A y G2; al Sur, con edificio identificado con la letra D; al Este, con edificio identificado con la letra A; y al Oeste, con edificio G1 y con Iglesia.



Urretxuko udala



- Planoan C letrarekin identifikatutako eraikin-elementua; elementu horrek 97,54 m<sup>2</sup>-ko azalera du oinplanoan, eta 182 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia du osotara, behe-solairuaren eta goiko solairu baten artean banatuta; muga hauek ditu: Iparraldean, A eta D letrarekin identifikatutako eraikinak; Hegoaldean, eliza eta “Elizaren zatia” dagokion lur-zatia, A.I.IF.3 Pagoeta Eliza ingurua espazio librean sistema orokorraren osagai dena; Ekialdean, A.I.IF.3 Pagoeta Eliza ingurua espazio librean sistemaren osagarri den lur-zatia; eta Mendebaldean, eliza.
- Planoan D letrarekin identifikatutako eraikin-elementua; elementu horrek 115,80 m<sup>2</sup>-ko azalera du oinplanoan, eta 89 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia du osotara, behe-solairuan banatuta; muga hauek ditu: Iparraldean, A eta B letrarekin identifikatutako eraikinak; Hegoaldean, C letrarekin identifikatutako eraikina; Ekialdean, A letrarekin identifikatutako eraikina; eta Mendebaldean, eliza.
- Planoan E letrarekin identifikatutako eraikin-elementua, orubean 113,18 m<sup>2</sup>-ko azalera duena, eta 339,68 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia, behe-solairuaren, goiko lehen solairuaren eta teilatupeko solairuaren artean banatuta; muga hauek ditu: Iparraldean, G1 letrarekin identifikatutako eraikina; Hegoaldean, “Elizaren zatia” dagokion lur-zatia, A.I.IF.3 Pagoeta Eliza ingurua espazio
- Elemento edificatorio identificado con la letra C del plano, con una superficie en planta de 97,54 m<sup>2</sup> y que comprende una superficie construida total de 182 m<sup>2</sup> distribuidos en planta baja más una planta en altura, y que linda: al Norte, con edificios identificados con las letras A y D; al Sur, con Iglesia y con terreno “porción iglesia” que conforma el sistema general espacio libre A.I.IF.3 Pagoeta Eliza ingurua; al Este, con terreno que conforma el sistema general espacio libre A.I.IF.3 Pagoeta Eliza ingurua; y al Oeste, con Iglesia.
- Elemento edificatorio identificado con la letra D del plano, con una superficie en planta de 115,80 m<sup>2</sup> y que comprende una superficie construida total de 89 m<sup>2</sup> distribuidos en planta baja, y que linda: al Norte, con edificios identificados con las letras A y B; al Sur, con edificio identificado con la letra C; al Este, con edificio identificado con la letra A; y al Oeste, con Iglesia.
- Elemento edificatorio identificado con la letra E del plano, que comprende una superficie en planta solar de 113,18 m<sup>2</sup> y una superficie construida de 339,68 m<sup>2</sup>, distribuida en PB + I + BC, y que linda: al Norte, con edificio identificado con la letra G1; al Sur, con terreno “porción iglesia” que conforma el sistema general espacio libre A.I.IF.3 Pagoeta Eliza ingurua; al



Urretxu udala



libreen sistema orokorraren osagai dena; eta Mendebaldean, F letrarekin identifikatutako eraikina.

- Planoan F letrarekin identifikatutako eraikin-elementua, orubean 130,25 m<sup>2</sup>-ko azalera duena, eta 390,75 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia, behe-solairuaren eta goiko bigarren solairuaren artean banatuta; muga hauek ditu: Iparraldean, multzoan G1 letrarekin identifikatutako eraikina; Hegoaldean, "Elizaren zatia" dagokion lur-zatia, A.I.IF.3 Pagoeta Eliza ingurua espazio libreen sistema orokorraren osagai dena; Ekialdean, "Elizaren zatia" dagokion lur-zatia, A.I.IF.3 Pagoeta Eliza ingurua espazio libreen sistemaren osagarri dena, eta E letrarekin identifikatutako eraikina; eta Mendebaldean, Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop.-en lurrak.
- Planoan G1 letrarekin identifikatutako eraikin-elementua, oinplanoan 109,06 m<sup>2</sup>-ko azalera duena, eta 327,18 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia, behe-solairuaren eta bigarren solairuaren artean banatuta; muga hauek ditu: Iparraldean, Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop.-en lurrak; Hegoaldean, eliza eta E letrarekin identifikatutako eraikina; Ekialdean, eliza; eta Mendebaldean, Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop.-en lurrak eta F letrarekin identifikatutako eraikina.
- Planoan G2 letrarekin identifikatutako eraikin-elementua; oinplanoan 29,25 m<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 119 m<sup>2</sup>-ko azalera

Este, con Iglesia; y al Oeste, con edificio identificado con la letra F.

- Elemento edificatorio identificado con la letra F del plano, que comprende una superficie en planta solar de 130,25 m<sup>2</sup> y una superficie construida de 390,75 m<sup>2</sup>, distribuida en PB + II, y que linda: al Norte, con edificio identificado con la letra G1 de este conjunto; al Sur, con terreno "porción iglesia" que conforma el sistema general espacio libre A.I.IF.3 Pagoeta Eliza ingurua; al Este, con terreno "porción iglesia" que conforma el sistema general espacio libre A.I.IF. 3 Pagoeta Eliza ingurua y con edificio identificado con la letra E; y al Oeste, con terrenos de Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop.
- Elemento edificatorio identificado como G1 del plano, con una superficie en planta de 109,06 m<sup>2</sup> y una superficie construida de 327,18 m<sup>2</sup>, distribuida en PB + II, y que linda: al Norte, con terrenos de Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop.; al Sur, con Iglesia y edificio identificado con la letra E; al Este, con Iglesia; y al Oeste, con terrenos de Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop. y edificio identificado con la letra F.
- Elemento edificatorio identificado como G2 del plano, con una superficie en planta de 29,25 m<sup>2</sup> y una superficie construida




Urretxu udala



eraikia, behe-solairuaren eta goiko hiru solairuren artean banatuta; muga hauek ditu: Iparraldean, Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop.-en lurak; Hegoaldean, multzoan B letrarekin identifikatutako eraikina; Ekialdean, A letrarekin identifikatutako eraikina; eta Mendebaldean, Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop.-en lurak eta G1 letrarekin identifikatutako eraikina.

de 119 m<sup>2</sup>, distribuidos en planta baja más tres plantas en altura, y que linda: al Norte, con terrenos de Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop.; al Sur, con edificio identificado con la letra B de este conjunto; al Este, con edificio identificado con la letra A; y al Oeste, con terrenos de Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop. y con edificio identificado con la letra G1.



**Bigarren.-** Jarduera honek duen interes publikoaren ondorioa da lagapena eta honako baldintza hauei lotua geratzen da:

**Segundo:** La cesión es motivada por el interés público que la actividad comporta y se sujeta a las siguientes prescripciones:



Urretxuko udala



a) Eraikina Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop-k egiten duen hezkuntza jarduerarako erabiliko da bakar bakarrik.

b) Lagapena prekarioan egiten da eta indarrean iraungo du dokumentu hau sinatzen den unetik hasita 75 urteko epean.

Urretxuko Udalak ez du inolako kanonik edo preziorik jasoko lagapenaren truke.

Nolanahi ere, lagapena desegin daiteke kasu hauetan:

- Erabilera-lagapenaren xede den hezkuntza-jarduerari uzten bazaio.
- Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop.-ek ondasuna itzultzen badu.

Erabilera lagapena amaiturik, eraikinean egin ahal izan diren hobekuntzak Urretxuko Udalarentzat geratuko dira, eta Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop-k ezingo du ezer erreklamatu horiengatik.

c) Urretxu-Zumarraga Ikastola S. Koop.-en kontura izango dira honako gastu hauek: ura, argindarra, gasa, estolderia, zaborrak, garbiketa, ezar daitezkeen alarma-sistemak, bai eta mantentze-gastuak edota sor daitezkeen kalteen konponketa gastuak ere, arduragabekeriagatik, erabilera desegokiagatik, erabilera normalak sortutako higaduragatik, mantentze-lanak ez egiteagatik eta abarregatik lagatako eraikinetan halakoak sortzen direnean. Ildo horretan, adierazi beharra dago B letrarekin identifikatutako eraikina zatituta dagoela jabetza horizontalean; Aita Pasiotarren kongregazioaren jabetzakoa da eraikin horren behe-solairua, eta, eta,

a) El inmueble habrá de ser destinado exclusivamente a la actividad educativa propia de Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop.

b) La cesión se efectúa en precario y por un plazo de 75 años desde la firma del oportuno documento administrativo.

El Ayuntamiento de Urretxu no percibirá canon o precio alguno por la cesión de uso.

No obstante, la cesión podrá extinguirse también en los siguientes casos:

- Por cesar la actividad educativa para la cual se efectúa esta cesión de uso.
- Por la devolución del bien por parte de Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop.

Finalizada la cesión de uso quedarán a favor del Ayuntamiento de Urretxu las mejoras que se hayan podido realizar en el inmueble, sin que Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop. pueda reclamar nada por las mismas.

c) Correrán a cuenta de Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop. los gastos de agua, luz, gas, alcantarillado, basuras, limpieza, posibles sistemas de alarma, así como el mantenimiento y reparación de los daños que, por imprudencia, uso indebido, desgaste del uso normal, falta de mantenimiento, etc..., se produzcan en los edificios cedidos. Señalar a este respecto que el edificio identificado con la letra B se encuentra dividido en propiedad horizontal, siendo propiedad de la Congregación de los Padres Pasionistas la planta baja del mismo, correspondiéndole una cuota de participación en los elementos comunes del 34,63%, y correspondiendo al resto de la edificación

elementu komunetan, % 34,63ko partaidetza-kuota dagokio; B letrarekin identifikatutako gainerakoari, lagapenaren xede denari, beraz, % 65,37ko partaidetza-kuota dagokio

d) Higiezinak egokitzeko egin beharreko obrak lagapen-hartzaileak egingo ditu, Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop.-ek, aurrez Urretxu Udalari jakinarazi eta haren baimena izan ondoren, udala lagatzaile den aldetik; eta, horrez gain, beharrezkoak diren hirigintzako lizentziak eskatu beharko dituzte.

e) Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop. erakunde pribatua da, bere nortasun juridikoa duena, eta, jarduera hau arrazoitzat hartuta, ez da Urretxu Udalarekiko mendekotasun-harremanean gelditzen, eta azken hau ez da ez zuenean eta ez zeharka edozein ekintzagatik edo ez-egitegatik edo higiezinan garatzen diren jardueren ondorioz higiezin horretan hark eragin ditzakeen kalte material, pertsonal edo moralen erantzule.

Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop.-ek erabiltzeko lagatako eraikinek (edukitzaileak) izan ditzaketan kalteak estaltzeko aseguru eta erantzukizun zibileko aseguru sinatu beharko ditu.

f) Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Koop.-ek ezin izango du lokala alokairuan eman, berralokatu, jabetzarik gabeko lagapenik egin, ez eta kontratu honen bidez dagozkion eskubideak doan edota kostu bidez eskualdatu ere. Lagapenaren xede den erabileratik kanpoko beste baterako ere ezin izango du erabili.

identificada con la letra B, cuyo uso se cede, una cuota de participación del 65,37%.

d) Las obras de habilitación que fueran necesarias se realizarán por la parte cesionaria Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop., previa comunicación y autorización del Ayuntamiento de Urretxu, en su calidad de propietario cedente, y sin perjuicio de las preceptivas licencias urbanísticas que fueran necesarias.

e) Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop. es una entidad privada y con personalidad jurídica propia, que por razón de esta actividad no queda en relación de dependencia respecto del Ayuntamiento de Urretxu, y este último no se hace responsable directa o indirectamente de los daños tanto materiales como personales o morales que por acción u omisión de cualquier clase puedan producirse tanto en el inmueble, como con ocasión del ejercicio de la actividad en el mismo.

Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop., deberá suscribir el correspondiente seguro que cubra los daños que puedan sufrir los edificios cuyo uso se cede (continente) y de responsabilidad civil.

f) Urretxu-Zumarraga Ikastola S.Coop no podrá arrendar, subarrendar, ceder en precario el local, ni transmitir mediante título gratuito u oneroso los derechos que en virtud de este contrato le corresponden.

Tampoco podrá destinarlo a otro uso distinto del que es causa de la cesión.



Urretxuko udala

**Hirugarren.-** Behar diren dokumentu guztiak sinatzeko ahalmena ematea alkate jaunari.

Eta beste gairik izan gabe, amaiera eman zaio batzarrari arratsaldeko zortziak hogeit gutxi direnean, eta horren guztiaren akta jaso da, eta bildutako guztiek sinatu dute, fede-emaile naizen honekin batera.



**Tercero.-** Facultar al Sr. Alcalde para la firma de cuantos documentos sean precisos al efecto.

Y no habiendo más asuntos que tratar se da por finalizada la sesión a las diecinueve horas y cuarenta minutos, de todo lo cual se extiende la presente Acta que firman conmigo todos los asistentes, y de lo que doy fe.